

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan elementu garrantzitsuenak ondorengoak izango lirateke:

Baliabide fisikoekin hasteko, garrantzitsuena, 3D inprimagailua izango litzateke. Izan ere, gure proiektua era egokian produzitu ahal izateko, inprimagailua guztiz beharrezkoa izango litzateke. Horretaz gain, inprimagailuarekin lotuta, beste baliabide batzuk ere, ezinbesteko garrantzia izango lukete. Esate baterako, inprimagailua programatzeko, beharrezkoa izango litzateke ordenagailu bat. Are gehiago, materialak ere ezinbesteko garrantzia dauka, materialik gabe ezin baita produkturik fabrikatu. Amaitzeko, telefonoa ere beharko genuen. Hori, ikastetxeekin zein beste edozein bezerorekin kontaktatzeko erabiliko genuke ordenagailuarekin batera.

Baliabide intelektual eta giza baliabideekin jarraituz, gure sormenak ezinbesteko garrantzia izango luke produktu erakargarriak sortzeko. Bestalde, gure antolakuntzarako eta kudeaketarako gaitasuna ere beharko genuen. Bestela, enpresa ez litzateke aurrera irtengo eta, era batera edo bestera, kudeaketan eta antolaketan arazoak izateak, hainbat ondorio izan ditzake enpresan.

Azkenik, finantza-baliabideei dagokienez, gure aurrezkien ehuneko handi bat, 5.100€ konkretuki, "Lanbide" izeneko zerbitzutik lortuko genuke. Horretaz gain, bakoitzak diru kantitate bat ipintzea gomendagarria izango litzateke badaezpada ere.